

Oiartzungo Udalak bat egin du errauste-plantaren moratoria eskaerarekin

Aitor Etxeberria alkatea Usurbilen izan da Greenpeaceko ordezkariarekin, eta bertatik egin ditu moratoriaren gaineko adierazpenak

Oiartzungo Udalak bat egin du errauste-programa 6 urtez atzeratzeko egindako eskariarekin. Xabier Mikel Errekondo Usurbilgo alkateak egin dio moratoria-eskaera Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta jada jaso du Hernaniko Udalaren eta errausketaren aurkako plataformen babesa.



Udala “erabat ados dago Usurbilgo alkateak Foru Aldundiari egin dion eskariarekin, etorkizunerako pauso garrantzitsua baita”. Usurbilgo birziklatze-mailak igo egin dira hondakinak atez ate biltzen hasiz geroztik, eta Oiartzunek laster ekingo dio bide berari. Etxeberriaren hitzetan, “ahalik eta hondakin gehien birziklatzea da etorkizuneko bidea eta, gaur gaurkoz, atez ateko bilketa da horretarako aukerarik onena. Gainera, errausketa ekiditeko sistema da eta esku-eskura dugu”.

“Errauste-plantan 400 milioi euro xahutzeak ez du ez hanka ez bururik” Oiartzungo Udalaren iritziz. “Are gutxiago, erraustegia bera eta ekarriko dizkigun osasun eta ingurugiro-arazoak ekiditea posible denean”. Atez atekoa sistema malgua da eta Gipuzkoa osora zabal daiteke. Denbora behar da ordea horretarako eta “moratoriak, hain justu, horixe eskainiko digu: denbora”. Atez ateko bulegotik adierazi dutenez, “oiartzuarrak, baliabideak izanez gero, apustuari ekiteko prest daude”.

Arau Subsidiarioak etetea baztertu du Auzitegiak

OBk egindako eskaera baztertu du Euskadiko Auzitegi Nagusiak

Arau Subsidiarioak kautelarki etetea baztertu du Euskadiko Auzitegi Gorenak. Iazko urrian Ugaldetxo, Elizalde, Arragua, Lanbarren eta Zerradi eremuak partzialki onartzearen kontra sartutako errekurso batean eskaera hori egin zuen OBk.

Udala pozik dago epaiarekin, epaitegiek Oiartzun garatzen jarraitzeko bidea erraztu dutelako: Arragua zaharra biziberrituko da; Udal Ikastola Partzuergoaren egoitza berria eraikiko da; tanatorio publikoa egingo da; babes ofizialeko 300 etxebizitza inguru eraikiko dira epe laburrean; Ugaldetxoko sahesbidea egin ahal izango da...

OBk noren interesak defendatzen ditu?

OBk Arau Subsidiarioen kontra eta hainbat proiekturen kontra -Arraguaren biziberritzea, esaterako- erabili duen argudioa izan da Arauak epaitegietan



daudela. Orain, kontrako motiborik gabe gelditu dira.

Berriz ere galdetu beharrean aurkitzen da Gobernu Taldea: noren interesak defendatzen ditu OBk? Herritarrenak ez, eurekin kontrastatuko proiektuak izan baitira onartu direnak, haiek egindako proposamen batzuk ere txertatuz eta lurjabeekin ere akordiotara iritsi da Udala.

ZENBAT BURU, HAINBAT ABURU

Kultura zientifikoa

Egoitz Etxebeste Aduriz. Zientzia-kazetaria.

Zientzia ere kultura da. Edo, hala behar luke behintzat, nire iritziz. Baina, pentsatu hiru zientzialari euskaldunen izenak. Zerrenda betetzeko gai zara? Orain saiatu musikariarekin, idazlearekin, bertsolariarekin, kirolariarekin, eta, ze arraio, baita sukaldariarekin ere. Seguru errazagoa egin zaizula.

Tira, ez dut hasi nahi inori azterketa egiten. Ez naiz hasiko “zelula nork aurkitu zuen?” eta halakoak galdezka. Gainera, lehenengo galdera egin orduko, “ni letratakoa naiz eta” jarriko dit aitzakia, batek baino gehiagok. Dena den, iruditzen zait aitzakia horrek ere gehiago balio duela alde batean, bestean baino. Frantziako Iraultza noiz gertatu zen erantzuten jakingo ez banu, ez dakit “zientziatakoa naiz” esanda oso airoso aterako nintzatekeen. Ez da nire asmoa inoren kontra egitea; inondik inora ere ez. Gogoetatxo bat eragin nahi nuke, hori besterik ez; zientziari egiten diogun arretari eta harrerari buruzko gogoeta.

Urte askotan Eurobarometroak Europan egindako iritzi-bilketan ikusi izan da zientzia eta teknologiari buruzko kontuak ez zaizkigula askorik interesatzen. Eta, iaz, Elhuyar Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoko Kabineteak euskaldunekin egindako gisa bereko azterketak ere antzeko emaitza eman zuen.

Kontuak badauka mamia. Azterketa horrek dio euskal gizarteak, oro har, goraiatu egiten dituela zientzia eta teknologia. Argi dugu zientzia eta teknologia berriei esker bizimodu erosoagoa dugula, bizi-itxaropen handiagoa dugula, eta asko hobetu direla komunikaziorako aukerak. Eta argi dugu, baita ere, ikerketa eta garapena funtsezkoak direla herriaren garapenerako eta ongizaterako. Zientzialariak ere estimatzen ditugu. Inkestek erakutsi dute zientziarekin lotutako lanbideek betetzen dituztela lanbide baloratuen zerrendako lehenengo hiru postuak: lehenengo, noski, medikuak daude; eta atzetik datoz zientzialariak eta ingeniariak, bigarren eta hirugarren postuan. Baina hala ere, zientzia eta teknologia goraiatzen eta zientzialariak miresten baditugu ere, azterketak argi uzten du lehen esandakoa ere: ez dugula interesik zientzia eta teknologiari buruzko gaiekin. Kontraesan mamitsua, bai horixe.

Gai zailak eta astunak iruditzen zaizkigu, eta ez dugu ahalegin berezirik egin nahi jakintza hori eskuratzeko eta zientziara eta teknologiarantz hurbiltzeko. Eta badakigu zientzialariak, sekulako lana egiten dutela, oso garrantzitsua, baina beste mundu batean bizi direla iruditzen zaigu, beste hizkuntza bat hitz egiten dutela, eta, haiek ulertzea... Baina kirolak ere bere hizkuntza du, kirol bakoitzak berea gainera, eta primeran menderatzen ditugu. Eta beren hizkuntza dute, baita ere, ekonomiak eta politikak, baina komunikabideetan tarte zabala eskaintzen zaie. Zientzialariak izango dute erruaren parte bat; seguru asko ez baitute ahalegin handiegirik egiten gizartera hurbiltzeko. Eta errua banatzen hasita, komunikabideei ere tokatuko zaie beste parte bat. Zientziaren dibulgazioaren banderatzat lehoiak eta ñuak dituzten telebistekin ezin kultura zientifikoari bultzada handirik eman.

Baina, gizartera bueltatuz, zientziaz zergatik ez da hitz egiten gainerako gaiez bezala? Zergatik kostatzen zaigu hainbeste? Zientzia zientzialarientzat uzten dugu. Garrantzitsua iruditzen zaigu, baina distantzia jartzen dugu.

Eta gero beldurrak datoz: telefoniako antenei beldurra, Wi-Fiari beldurra, transgenikoei beldurra. Ez dut esango halako kontuekin zuzentzeko jokatu behar ez denik, baina beldur horietako askok ezjakintasunean dute oinarria; kultura faltan.

Elizalde Eskolako autobus geltokia egiten ari dira

Elizalde Eskolan autobus geltokia eraikitzen hasi da Udala. Geltokia aterpeduna izango da eta Iturriotzen eraiki den geltoki berriaren antzekoa izango da, bai neurritz eta baita itxuraz ere. Geltokia Elizalde Eskolako ikasleentzako eta Xorrola herri barruko autobus zerbitzuko erabiltzaileentzako izango da. Martxoaren bukaerarako lanak eginda egongo dira, aurreikuspenen baitan. Bi ikastetxeen inguruan pibotak ere jarri dira, oinezkoen segurtasuna hobetzeko.

Drogei eta sexuari buruzko aholkularitza

Gazte Informazio Bulegoa sexuari eta drogei buruzko aholkularitza eskaintzen hasi da. Ostiralero, Askagintzako aditu bat bertan egoten da, gazteen dudak eta kezak argitzeko. Aholkularitza jasotzeko, alde aurretik hitzordua eskatu behar da. Horretarako hiru modu daude: Gazte Informazio Bulegora jo (Mendiburu kalea, 5), 943 49 11 05 telefonora deitu edo gazteinfo@oiartzun.org-ra idatzi. Zerbitzu honekin, Gazte Informazio Bulegoaren eskaintza zabaldu da.

“Zaindu osasuna, konpai”

Oiartzunen udaberrian martxan jarriko den atez atekoak baditu doina eta hitzak. Kuboa Kuban ibili da eta, beltzaran-beltzarana etortzeaz gain, bertako doinu alai eta sarkorrak ekarri ditu barruan. “Zaindu osasuna, konpai” da kantuaren izenburua eta dagoeneko hasi zaizkigu belarriak goxatzen www.oiartzunatezate.org-tik eta Oiartzun Irratitik. Hala nahi duenak, atez atekoaren webgunean abestia nahi adinatan entzun eta deskargatzeko aukera eskura du. Gorputza mugitzeak eta kantari jarduteak ere mesede egiten diote osasunari!

LEIRE GURUTZEALDE: 'Ez naiz inoiz aurkeztu izan piano txapelketetara, Andoaingoa izan da lehena'

Behatzak dantzatzuz gainontzeak dantzan jartzea da Leire Gurutzealderen (1993/05/06) abilezia. Eta ez nolanhikoa gainera! Pianojole gazte honek V. Andoaingo Piano Jaialdia irabazi berri du. Otsailaren lehen asteburuan ospatu zen lehiaketa eta Leirek bere mailako lehen saria eskuratu zuen; 16 eta 18 urte arteko pianojole guztien artean lehena izan zen, hain zuzen ere. Horretaz eta beste hainbat gaiez aritu gara kontu-kontari Leirerekin.

V. Andoaingo Piano Jaialdia irabazi berri duzu. Sari hauek, ordea, bide luze baten fruitua izan ohi dira. Kontaiguzu pixka bat zure musika-ibilbidea.

Txiki-txikitatik ezagutzen naute lbargain musika eskolan! Bost edo sei urterekin hasi nintzen solfeo ikasten eta oraindik hemen jarraitzen dut.

Solfeoa hasi eta pare bat urtera instrumentua aukeratzea tokatu zitzaidan eta pianoari ekin nion. Orduz geroztik pasa da urte mordoak, baina inoiz ez naiz aurkeztu izan lehiaketetara; Andoaingoa izan da lehena. Lotsak eta egin beharreko prestaketa extreko ez didate lagundu izan. Oraingoan, ordea, lbargainen emandako "ultimatum"ak eta etxeko babesak animatu egin naute eta, hara nola diren gauzak, irabazi egin dut txapelketa. Nire hasierako asmoa esperientziak gozatzea zen, baina sariak beti hartzen dira eskuzabalik.

Pianoaz gain, oraindik solfeoarekin ere jarraitzen dut eta batxilergoa bukatu artean behinik behin horretan aritzeko asmoa dut. Pentsatu izan dut beste instrumenturen batekin ere hastea, baina denboraz nahiko eskas nabil.

Zer esanahi du zuretzat horrelako txapelketa bat irabazteak?

Lehiaketa batean parte dudana lehen aldia izanik, 106 partaide ginela kontuan hartuta eta "amaiera kontzertua"n aritzeko aukera izan nuela jakinik,

ilusio handiz hartu dut saria.

Jotakoarekin gustura geratu nintzen, baina ez nuen inondik inora lehen saria espero. Egia da sari banaketa tentsioz bizitu nuela, ez baitakizu inoiz zer gerta litekeen. Hala ere, esan bezala, ez zitzaidan burutik pasa ere egiten lortutako saria jasoko nuenik.

Sariaz gain, nire buruari lehiaketetan parte hartzeko gauza naizela frogatzeko balio izan dit esperientziak.

Beste hainbat jardunbidetan moduan, egiten dugun horretan asmoa eta ilusioa jartzean omen dago gakoa. Zu lbargain musika eskolako "Nau" taldeko kide ere bazara. Zure kasuan musika bera eta pianoa jotzea plazerra dela esan al genezake?

Bai, gustura eta nahi dudalako egiten ditut. Galdetu egin zidaten "Nau" taldean sartu nahi ote nuen eta nik neronek erabaki nuen taldeko partaide izatea. lbargaino hainbat ekintza "pack" berean egin behar izaten dira (solfeo, kamarako klaseak, koroa...), baina "Nau" taldean egotea ez da derrigorrezkoa.

Hamar bat lagun elkartzen gara astean behin entsaiatzeko. Bateria, tronpeta, gitarra, teklatura eta abeslaria gara taldean; nik teklatura jotzen dut. Gure helburua ondo pasatzea eta gustura egotea da. Hala tokatzen denean, udal txean antolatutako kontzertuetan, Ugaldetxoko futbol zelaiaren festan, Kaldereroekin... ere egon izan gara.

16 urte dituzu. Zure etorkizuneko ikasketak musikari lotuta egiteko asmorik ba al duzu?

Ez. Baliteke kontserbatorioan tituluren bat-edo ateratzen saiatzea, baina nire ikasketak musikarekin zuzenki lotzerik ez dut pentsatu. Musika plazerra da niretzat, ez da nire helburua musikako irakasle izatea. Baliteke ideiaz aldatzea, baina gaur gaurkoz ez da hori nire asmoa.



Klixk!

Inauteriak, aurpegiz aldatzeko garaia

Mozorroen festa handia dira inauteriak. Aurtengoan ere, Elizalde Eskolak eta Haurtzaro Ikastolak ospatu dute festa. Indioak, pailazoak, behiak eta esneketariak, inuitak, dantzariak, sorginak, amona zaharrak, erleak... Denetik ikusteko aukera izan zen bi ikastetxeen emanaldietan eta asteburuan.



TELEFONO BALIAGARRIAK:

- Udaleko informazio bulegoa: 943 49 01 42
- Udaltzaingoa: 943 49 33 11
- Taxia eta taxibus: 943 49 14 74
- Iparbus eta Xorrola: 943 49 18 01
- Eusko Trenbideak: 902 543 210
- Elorsoro udal kiroldegia: 943 49 25 52
- Manuel Lekuona udal biblioteka: 943 49 38 64
- Osasun Zentrua: 943 49 11 01 / 943 49 26 04
- Elizalde Herri Eskola: 943 49 01 93
- Haurtzaro Ikastola: 943 49 16 59
- Oiarzun Irratia: 943 49 11 37
- Bidez Bide/Bidelaun programak: 690 769 466

GUARDIAKO FARMAZIA:

Otsailaren 27tik martxoaren 4ra
Antunex Irastorza, Karmele • Doneztebe plaza, 5 • 943 49 03 52

Atez ateko zalantzak argitzen: Bidali zure galdera atezate@oiartzun.org helbidera eta ikusi guztiak webgunean: www.oiartzunatezate.org



Zenbat kubo marroi edukiko ditu etxebizitza bakoitzak?

Bi. Bat zintzilikailuan dagoen bitartean bestea betetzen joan ahal izateko, familia bakoitzak bi kubo izango ditu etxean. Familia ugariak, nahi izanez gero, kubo handixeagoak izateko aukera izango dute. Kubo arrunta 10l.-koa da eta familia ugariena, aldiz, 25 l.-koa.

Zergatik ezin dira erabili poltsa biodegradagarriak hondakin organikoak jasotzeko?

Konposta makinaren izaeragatik. Izan ere, makina horiek ardatz bat izaten dute, eta poltsa biodegradagarriak ardatz hori kateatzen dute.

Beira zergatik ez da atez ate bilduko?

Gaur egungo sistemak ondo funtzionatzen duelako. Beste kontenedoreek ez bezala, beiraren igluak aho txikia du eta bertan ez da edozer gauza kabitzen. Hala ere, atez ate biltzen hastean beira gehiago birziklatuko da Oiarzun eta Udalaren asmoa igluen zerbitzua indartzea da.